**Idazkaritza-Kontuhartzailetza**

2023/12/21ean EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 21/12/2023.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2023ko abenduaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla, bildu da Ezohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 21 de diciembre de 2023, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2023-11-23 eta 2023-12-13.

**2.- ALKATETZAREN ADIERAZPENAK.**

2023ko abenduaren 14ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

**3.- ESKORIATZAKO UDALAREN 2024ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA.**

Bertaratutako zinegotzi guztiek ezagutzen dute Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak onartzeko aurkezten duen 2024rako aurrekontu proposamena, eta Alkateak hitz egiteko txanda eman du.

- Josu Ezkurdia: batzordearen aktan jasota dagoenez, guk aurka bozkatuko dugu, batez ere aurrekontu oso urriak iruditzen zaizkigulako. Azken batean, inbertsioen kapitulura joanez gero, horretarako oso kopuru txikia bideratu dela ikus daiteke. Kakotx artean, badirudi aurrekontu hau kontulari batek egin duela eta ez Eskoriatza "eraiki" nahi duen talde politiko batek. Hori esanda, Eskoriatzarentzat onak izan daitezke guk martxan jarri genituen moduko inbertsioak, esate baterako, skate-parkea eta gimnasio berriaren obra, lizitatu dena eta laster gauzatuko dena. Proiektua gure legegintzaldian jarri zen martxan, zuek proiektu horrekin jarraitu duzue, eta, gure ustez, horregatik aurreikusten da datorren urterako ere gimnasio berrirako partida bat. Hala ere, badirudi gasolina agortzen ari dela, beste proiekturik ikusten ez delako. Ez dakit datorren urteari begira zer egingo duzuen edo zer egiteko asmoa duzuen, baina badaude ideia batzuk, eta baita eskaera batzuk ere; adibidez, urriko hirigintza batzordean proposatu genuen espaloi bat egitea San Pedroko eta Intxaurtxuetako irisgarritasuna hobetzeko lanak burutzeko. Eta, hala ere, ez dugu horretarako partidarik ikusi. Edo, gure kanpainan planteatu genuen bezala, kultur etxeko eraikin osoaren birgaitze integrala egitea, bertan "Musika Eskola" jartzeko eta erretiratuentzako gune osoa berritzeko. Ez dakit zer asmo duzuen, baina argi dago hori guztiori egiteko kreditua lortu behar dela gero, kredituak aldatuz edo ez dakit nola. Baliteke horretarako dirua egotea, baina arazoa da denborak aurrera egiten duela eta aurrekontuetan agertzen ez diren proiektuak asko atzeratzen eta luzatzen direla. Zentzu horretan, esan dudan bezala, oso oinarrizko aurrekontuak direla uste dugu, gastuak eta

diru-sarrerak orekatzera mugatu zaretela besterik ez da ikusten. Horregatik bozkatuko dugu aurka.

- Alkatea: sarrerak eta gastuak direnak dira, eta bien arteko aldea da inbertsioetarako dagoena. Badakizu soberakin bat dagoela, eta aurreikusten dira inbertsio batzuk egungo aurrekontua kitatzen denerako. Inbertsioetarako diru gutxi dagoela esandakoari buruz, kontuan izan behar da 71.000 euro aurreikusi direla aurreko gobernu-taldeak duela 2 urte eskatutako mailegua ordaintzeko, eta horrek ere murriztu egiten duela inbertsioetarako dirua. Kontua da soberakin bat dagoela, aurrekontuak likidatzen direnean gehituko dena, eta orduan planteatuko direla inbertsioak.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek bozkatuta, Udalbatzarrak, EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako gainerako EAJ/PNVko 3 zinegotziek, aurka, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea 6.101.465,43 €-ko udal aurrekontua.

**Bigarrena.-** 2024ko aurrekontua orokorra osatzen duen dokumentazio guztia hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

## 4.- 2024. URTEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.

Eztabaidatuta eta bototara jarrita Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena, Udalbatzarrak, EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako Udalaren 2024rako Lanpostuen Zerrenda onartzea, honako aldaketa honekin 2023koarekiko: GIZARTE LANGILEA 2 lanpostuaren lanaldia % 100ean finkatzea.

**Bigarrena.-** 2024rako plantilla organikoa onartzea.

**Hirugarrena.-** Dokumentu biak jendaurrean jartzea 15 egun baliodunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita, egoki iritzitako erreklamazioak jarri eta iradokizunak egiteko. Adierazitako epean erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako erabakia behin betikotzat joko da Udalbatzarrak berariaz beste erabakirik hartu behar gabe.

eskoriatzako udala

**5.- DIRULAGUNTZEN 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.**

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziek aurka bozkatuta eta EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 diru laguntzen plan estrategikoa.

**Bigarrena.-** Plan hori jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

BOTO AZALPENA:

*Josu Ezkurdia: guk aurka bozkatuko dugu, kontra bozkatu dugun aurrekontuekin zuzenean lotutako gaia delako; eta, gainera, ikusten dugu inbertsioekin gertatzen den gauza bera gertatzen dela, ikusten dugu dirulaguntzak badaudela, gehienak aurreko legegintzaldikoen berak direla eta hori pozgarria da, baina, era berean, ikusten dugu kirol elkarteei esleitutako kopurua ez dela handitzen. Onartutako aurrekontuetan ikusten da "azpikontraten" kostua handitu egin dela, eta normala ikusten dugu, nahiz eta horrek arriskuan izan, bizi-kostua eta KPIa handituz doazelako; eta ikusten dugu kirol-taldeentzat ez dela inolako igoerarik aurreikusten, eta uste dut, egiten duten lanagatik, merezi dutela.

**6.- SURADESA S.A. ESKORIATZAKO UDALAREN BEREZKO BALIABIDE IZENDATZEA.**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluari jarraiki SURADESA S.A. Udal honetako berezko baliabide izendatzeko SURADESAK berak egindako proposamena ikusi da, eta Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EH BILDUko 7 udalbatzarkidek alde bozkatuta eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** SURADESA S.A. Eskoriatzako Udalaren berezko baliabide izendatzea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluak ezarritako baldintzak betez, erakundearen bazkide diren eta izendapen-erabakiarekin bat egiten duten gainerako udalekin batera.

**Bigarrena.-** Udalak aginduko dizkion lanak erakundearen xedea osatzen duten jardueretara mugatzea.

**Hirugarrena.-** Izendapen hau eta gainerako udalena erakundearen estatutuetan jasotzea onartzea.

**7.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA LUZATZEKO PROPOSAMENA.**

2022ko otsailaren 22an, Udalbatzarrak erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetza-hitzarmen bat formalizatzea etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Hitzarmen horren hamalaugarren klausulan aurreikusitakoaren arabera, sinatu zen egunean indarrean jarri bazen ere, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituen ondorio ekonomikoak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Era berean, hitzarmen hori amaitu ondoren urte natural batez berariaz luzatu ahal izango zela aurreikusi zen. Hitzarmenaren eta haren luzapenen gehieneko iraupena ez da lau urtetik gorakoa izango, salbu eta araudian epe luzeagoa aurreikusten bada.

Formalizatutako hitzarmenaren hasierako indarraldia amaitzeko data hurbil dagoenez, eta Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Urte natural batez, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko izenpetutako hitzarmena.

**8.- EUSKAL HERRIKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUAREN (EHPM) ESKARIZ EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA PENTSIODUN GUZTIEK GUTXIENEZ 1.080 EUROKO DIRU-SARRERAK BERMATUTA IZAN DEZATELA ESKATZEKO.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek izan dute Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak egindako eskaeraren testua, ondoren transkribatzen dena hitzez hitz:

*EHPMk (Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak) zuengana jotzen du Eskoriatzako Udalaren osoko bilkuran mozio bat onar dezazuen, gure funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz: pentsiodun guztiek gutxienez 1.080 euroko diru-sarrerak izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.*

*Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari horrekin hasten da:*

*"EHPM-MPEHk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1.080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori Estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuei zuzentzen diegu; azken horiei, gainera, eskatzen diegu, gaur egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.*

*Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatuko dugu.*

*“Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsonen eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.*

*1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioak EZ errebalorizatzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 13. orrian ikus daitekeen bezala: "... egiaztatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGSa 641,40 eurotik 1.080 eurora igo dela, baina gutxieneko pentsioa*
*601,40 eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata geroratuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldatekin; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du erreferentzia gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan*
*LGSren % 93,7 izatea eta 2023an % 72,5 izatea. "*
*Gaur egungo bizi-kostuaren hazkunde esponentzialaren testuinguruan, gero eta pentsiodun gehiagok eten egiten dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitutakoa, elikadura osasuntsua, osasuna eta arreta eraginkorra bermatzea mendekotasuna artatzeko*
*dituzten beharrak arintzeko, etab. Gaur egun EAEn, 167.718 pentsiodunek 1.080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, eta horietako gehienak emakumeak dira.*

*Gutxieneko pentsioak, aldagai guztietan, emakume izena du. Izan ere, genero-arrakala horren aurrekari dira soldaten desberdintasuna eta emakumeak alde bakarretik esleitzea ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari ugalketaren eta zaintzaren esparruan.*

*1.080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonek ematen dioten zilegitasuna du.*

*Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.*

*Horregatik, Eskoriatzako Udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:*

*1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1.080 eurora arte osatu dezaten*
*pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.*

*2.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2023ko abenduaren 21ean.*

Hitza emanda, ondorengoek hitz egin dute:

- Dorleta Sologaistoa: Ados gaude eskatzen dutenarekin. Madrilen eskumena izan daitekeen arren, uste dugu Eusko Jaurlaritzak osagarri bat esleitzea erabaki dezakeela. Zilegi iruditzen zaigu 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatzea. Kopuru horretatik beherako pentsioa jasotzen duten pertsonen artean, gehienak emakumeak dira, eta denok dakigu horren arrazoiak zeintzuk diren: gehienak kotizatu ezin izan duten etxekoandreak izan dira, eta oraindik ere ezin da, nahiz eta egoera aldatzen ari den. Azkenean, 60.702 emakumeren pentsioa eta 25.290 gizonena 1.080 eurora

iristeko osagarria eskatzen da. Gure ustez, eskaera bidezkoa da, eta horrek 244 milioiko kostua ekarriko lioke Eusko Jaurlaritzari, hau da, bere aurrekontuen % 1,71. Uste dugu guztiok merezi dugula soldata eta pentsio duin bat, eta horregatik merezi dutela gure babesa "gerra" honetan. Uste dugu Eusko Jaurlaritzak ahalegin hori egin dezakeela, beste proiektu batzuetan inbertitzen duelako, abiadura handiko trenean adibidez, gure ustez ez dena hain beharrezkoa.

- Josu Ezkurdia: honen mozio berdina aurkeztu zenean bezala, guk kontra bozkatuko dugu. Arrazoiak bere garaian alegatutakoen berberak dira. Oraingoz, eskumena ez da Eusko Jaurlaritzarena, Espainiako Gobernuarena baizik. Kontuan hartuta Espainiako Gobernuak bere burua aurrerakoitzat jotzen duela, eta kontuan hartuta, diozun bezala, aipatu duten kopurua txikia bada Eusko Jaurlaritzarentzat, pentsatu zenbat txikiagoa izan daitekeen Espainiako Gobernuarentzat. Gure ustez, horrelako mozioak Madrilen aurkeztu behar dira, eta ez hemen. Horregatik bozkatuko dugu aurka.

- Dorleta Sologaistoak erantzun dio erreklamazio hori Madrilen aurkeztu dela jada.

Hitz egiteko txandak amaituta, bozketa egin da.

EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta bertaratutako EAJ/PNVko 3 zinegotziek, aurka, Udalbatzarrak onartu egin du Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak egindako eskaera, eta ondorioz, honako hau ERABAKI DU:

1.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu 1.080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2.- EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia 2023ko abenduaren 21ean.

**9.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:12an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
2024/01/2916:40:58

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN
2024/03/2512:16:55

**1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fechas 23/11/2023 y 13/12/2023 .

**2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 14 de diciembre de 2023.

**3.- APROBACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA PARA EL EJERCICIO 2024**

Siendo conocido por todos los corporativos presentes la propuesta de Presupuesto 2024 que para su aprobación se eleva desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Alcalde abre el turnos de intervenciones.

- Josu Ezkurdia: Como ya consta en el acta de la comisión, nosotros votaremos en contra, principalmente porque nos parecen una presupuestos muy escasos. En último término, si se va al capítulo de inversiones se puede ver que hay destinado al mismo muy poca cantidad. Entre comillas, parece que este presupuesto lo ha elaborado un contable y no un grupo político que quiere "construir" Eskoriatza. Dicho eso, son inversiones que pueden ser buenas para Eskoriatza aquellas como las que nosotros pusimos en marcha, como es el caso del skate-park, y la obra del gimnasio nuevo que se ha licitado y que pronto se ejecutará. El proyecto se puso en marcha en nuestra legislatura, vosotros habéis seguido con el mismo y entendemos que por eso se contempla también para el año que viene una partida para el gimnasio nuevo. No obstante, da la impresión de que la gasolina se va agotando porque no se ven proyectos adicionales. No sé de cara al año que viene qué haréis o qué intenciones tenéis de hacer, pero ya hay algunas ideas e incluso algunas peticiones; como la propuesta que planteamos en la comisión de urbanismo de octubre de ejecutar una acera para culminar los trabajos de mejora de la accesibilidad de San Pedro e Intxaurtxueta. Y sin embargo no hemos visto partida para ello. O también, como planteamos en nuestra campaña , la rehabilitación integral de todo el edificio de la casa de cultura para emplazar allí "Musika Eskola" y renovar todo el espacio destinado a los jubilados. No sé qué intenciones tenéis, pero es claro que luego hay que conseguir el crédito para todo ello vía modificación de créditos o no se cómo. Puede

que haya dinero para ello, pero el problema es que el tiempo corre y que los proyectos que no aparecen en lo presupuestos se retrasan y alargan mucho en el tiempo. En ese sentido, como ya he dicho, consideramos que son unos presupuestos muy básicos, en los que no se ve otra cosa que la que os habéis limitado a equilibrar gastos e ingresos. Por eso votaremos en contra.

- El Alcalde: Los ingresos y los gastos son los que son, y la diferencia entre ambos es lo que hay para inversiones. Ya sabes que hay un remanente, y para cuando se liquide el presupuesto actual ya se prevén unas inversiones. En cuanto que hay poco dinero para inversiones, también hay que tener en cuenta que se han previsto 71.000 euros para pagar el préstamo que el anterior equipo de gobierno pidió hace 2 años, y ello también reduce el dinero para las inversiones. El asunto es que hay un remanente, que se incorporará cuando se liquide el presupuestos y que entonces ya se plantearán inversiones.

Terminadas todas la intervenciones se procede a votar.

Emitido el voto por todos los corporativos presentes, el Pleno, con el voto a favor de los 7 concejales de EHBILDU y el voto en contra de los 3 concejales restantes presentes de EAJ/PNV , ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Presupuesto municipal por importe de 6.101.465,43 €

**Segundo.-** Aprobar inicialmente toda la documentación que integra el Presupuesto General para 2021, de conformidad con lo establecido en el art. 445 del Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1986, del 15 de abril.

**Tercero.-** Entender elevada a definitiva su aprobación en el caso de que no se produjera reclamación alguna en el periodo de exposición pública, a los efectos de admitir reclamaciones y sugerencias, de quince días

## 4.- APROBACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2024

Sometida a debate y votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, con el voto a favor de los 7 concejales de EHBILDU y la abstención de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA :

**Primero:** Aprobar la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Eskoriatza para el año 2024 con la siguiente modificación en relación a la de 2023: fijar en el 100% la jornada del puesto de trabajo de TRABAJADOR/A SOCIAL 2.

**Segundo:** Aprobar la plantilla orgánica para 2024

**Tercero:** Someter ambos documentos a información pública por un periodo de 15 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas. En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o alegación, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

**5- APROBACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2024-2027.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el voto en contra de 3 concejales presentes de EAJ/PNV y el voto favorable de los 7 concejales de EH BILDU , el Pleno ACUERDA:

**Primero**: Aprobar inicialmente el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Ayuntamiento de Eskoriatza.

**Segundo:** Someter dicho Plan a información pública por un periodo de 30 días hábiles , contados a partir de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para que pueda ser examinadas y presentar las reclamaciones y sugerencias que se estimen pertinentes.

**Tercero:** De no producirse sugerencias o reclamaciones, dicho Plan se entenderá definitivamente aprobado sin necesidad de nuevo acuerdo.

JUSTIFICACIONES DE VOTO:

*Josu Ezkurdia: Nosotros votaremos en contra porque es un asunto directamente relacionado con los presupuestos a los que hemos votado en contra, y, además, vemos que pasa lo mismo que con las inversiones, vemos que subvenciones ya hay, que la mayoría son las mismas que las de la anterior legislatura y eso es de alegrar, pero también vemos que no se incrementa la cantidad asignada a las asociaciones deportivas . En los presupuestos aprobados se ve que se ha aumentado el costo de las "subcontratas" y vemos normal, aunque tiene su riesgo, porque el costo de vida y el IPC van aumentando; y vemos que para los grupos deportivos no se contempla subida alguna y creo que la merecen por toda la labor que desempeña.

**6.- DESIGNACIÓN A SURADESA S.A. COMO MEDIO PROPIO DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

Vista la propuesta que desde SURADESA S.A. se hace para que sea designada medio propio de este Ayuntamiento de acuerdo con el artículo 32 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público; y de conformidad con las propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, con el voto favorable de los 7 corporativos de EHBILDU y la abstención de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, ACUERDA:

**Primero:** Designar a SURADESA S.A. medio propio del Ayuntamiento de Eskoriatza en cumplimiento de las condiciones establecidas en el art. 32 de la Ley 9/2017, de 8 de

noviembre, de Contratos del Sector Público, junto con los otros ayuntamiento socios de la entidad que se sumen al acuerdo de nombramiento.

**Segundo:** Que el régimen de los encargos que le realice el Ayuntamiento se limite a las actividades que constituyen el objeto de la entidad.

**Tercero:** Aprobar que la presente designación, junto con la de los restantes ayuntamientos, conste en los Estatutos de la entidad.

**7.- PROPUESTA DE PRÓRROGA DEL CONVENIO FORMALIZADO CON LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA PARA LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.**

Con fecha 22 de febrero de 2022 el Pleno del Ayuntamiento acordó formalizar con la Diputación Foral de Gipuzkoa un convenio de colaboración para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

De conformidad con lo previsto en la cláusula decimocuarta del citado convenio, si bien entró en vigor el día de su firma, surtió efectos económicos desde el 1 de octubre de 2021 y su vigencia se extiende hasta el 31 de diciembre de 2023. Asimismo, se contempló que dicho convenio podría ser prorrogado de forma expresa a su finalización por período de un año natural. La duración máxima del convenio y sus prórrogas no podrá ser superior a cuatro años salvo que normativamente se previera un plazo superior.

Estando próxima la fecha de finalización de la vigencia inicial del convenio formalizado, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

**Primero:** Prorrogar por un año natural, desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2024, el convenio formalizado con la Diputación Foral de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

**8.- MOCION PRESENTADA POR EHBILDU A SOLICITUD DEL MOVIMIENTO DE PENSIONISTAS DE EUSKAL HERRIA (EHPM) REIVINDICANDO QUE SE GARANTICE QUE TODAS LAS PERSONAS PENSIONISTAS DISPOGAN DE UNOS INGRESOS MÍNIMOS DE 1080 EUROS EN 14 PAGAS.**

Todos los corporativos presentes han dispuesto del texto de la solicitud cursada por el Movimiento de pensionistas de Euskal Herria, cuya copial literal se transcribe a continuación:

*El EHPM (Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria) nos dirigimos a ustedes para que en el pleno del ayuntamiento de Eskoriatza procedan, si así lo consideran, a la APROBACION de una moción apoyando una de nuestras reivindicaciones fundamentales: garantizar que todas las personas pensionistas dispongan de unos ingresos mínimos de 1080 euros en 14 pagas.*

*Adjuntamos al presente escrito, el informe resumido que hemos elaborado y presentado en la comparecencia ante la Comisión de Politicas Sociales y Juventud del Parlamento Vasco en la que solicitamos y justificamos dicha reivindicación, cómo hacerla efectiva y la estimamos de su coste. El*

*informe comienza con dicha demanda:*

*"Con el presente informe, elaborado por el EHPM-MPEH pretendemos impulsar nuestra demanda inmediata de establecer para el año 2023 la Pensión Mínima en 1080 euros. Esta demanda la dirigimos tanto al gobierno del Estado como a los gobiernos de la CAV y Navarra; a estos últimos además les demandamos que, mientras no se fije la pensión mínima que hoy está en 783 euros en esa cantidad, complementen dicha pensión mínima hasta 1080 euros en catorcepagas.*

*Con este informe damos un paso más en la explicación de nuestra demanda y calculamos una estimación económica del presupuesto necesario en la CAV y Navarra."*

*Además, en dicho informe (como podrán ver) manifestamos que esta demanda es una necesidad social urgente y de justicia porque las instituciones públicas tienen la obligación de adoptar las decisiones precisas para garantizar a la ciudadanía unas condiciones de vida dignas; condiciones que en el caso de las personas mayores y pensionistas que no disponen de ingresos procedentes de su trabajo pasan por garantizar unos ingresos mínimos suficientes.*

*El establecimiento de la pensión mínima de 1080 euros reduciría considerablemente la brecha de género en pensiones. Las consecuencias de la NO revalorización de las pensiones en función del incremento del coste de la vida son manifiestas como se puede ver en el Informe pg. 13: "…constatamos que en los últimos años (2011 a 2023) el SMI se ha incrementado de 641,40 euros a 1080 euros y sin embargo la pensión mínima sólo ha aumentado de 601,40 euros a 783 euros. Las pensiones son sin ninguna duda salario diferido y su cuantía está directamente relacionada con los salarios que se perciben por lo que también la pensión mínima debe de tener como referencia el SMI. Es inaceptable que en 2011 la PM fuera el 93,7% del SMI y en 2023 sea el 72,5%."*

*En el actual contexto de crecimiento exponencial del coste de la vida cada vez más pensionistas ven truncadas sus posibilidades de acceder a una vivienda saludable y adecuada a sus necesidades, una alimentación sana, garantizar su salud y la atención efectiva para paliar sus necesidades de atención a la dependencia etc. Hoy 167.718 personas pensionistas en la CAV tienen ingresos por pensiones por debajo del os 1080 euros, la inmensa mayoría de las cuales son mujeres.*

*La pensión mínima en todas sus variables tiene nombre de mujer. Es algo que se constata en la brecha de género que tiene como antecedente la desigualdad de salarios y la asignación unilateral de las mujeres al trabajo no remunerado o mal pagado en el ámbito de la reproducción y los cuidados*

*Esta reivindicación de 1080, tiene la legitimidad que le otorgan las decenas de miles de personas que han participado y participan en nuestras movilizaciones desde hace más de cinco años*

*Concluimos que no hay razón ni económica ni política para no hacerlo y no podemos esperar un día más.*
*Por ello demandamos del pleno de la corporación municipal de Eskoriatza la decisión de:*

*1.- Demandar al Gobierno y Parlamento de la CAV que complementen hasta 1080 euros por 14 pagas la pensión mínima de las personas pensionistas con efectos retroactivos a enero de 2023.*

*2.- Enviar al Gobierno y Parlamento de la CAV notificación de la decision adoptada en el pleno de este Ayuntamiento en fecha 21 de diciembre de 2023.*

Concedida la palabra se producen las siguientes intervenciones:

- Dorleta Sologaistoa: Estamos de acuerdo con lo que reclaman. Si bien puede ser una materia competencia de Madrid, consideramos que el Gobierno Vasco bien podría acordar la asignación de un complemento. Nos parece legítimo pedir una pensión mínima de 1080 euros. De entre las personas que perciben una pensión inferior a esa cantidad la mayoría son mujeres y todos sabemos cuáles son las razones de ello, la mayoría han sido amas de casa que no han podido cotizar, aunque todavía tampoco se puede, si bien la situación va cambiando. Al final, lo que se pide, es un complemento para que la pensión de 60.702 mujeres y la de 25.290 hombres llegue a la cantidad de 1080 euros. Consideramos que es legítima la solicitud, que ello supondría 244 millones de costo para el Gobierno Vasco, que esto supone el 1,71 % de sus presupuestos. Creemos que todos merecemos un sueldo y una pensión dignos y que por eso merecen nuestro apoyo en esta “guerra”. Creemos que el Gobierno Vasco puede hacer ese esfuerzo porque ya invierte en otros proyectos, como el tren de alta velocidad, que a nuestro entender no es tan necesario.
- Josu Ezkurdia: Al igual que cuando se presentó una moción igual a esta, nosotros votaremos en contra. Los motivos son los mismos que los alegados en su día. De momento la competencia no es del Gobierno Vasco, es del Gobierno de España. Teniendo en cuenta que el Gobierno de España se autocalifica como progresista, y teniendo en cuenta que, si como dices la cantidad que han mencionado es pequeña para el Gobierno Vasco, piensa cuanto menos puede llegar a ser para el Gobierno de España. Creemos que este tipo de mociones hay que presentarlas en Madrid y no aquí. Por eso votaremos en contra.
- Dorleta Sologaistoa le responde que esta reclamación ya se ha presentado en Madrid.

Terminadas las intervenciones, se procede a votar.

Con el voto a favor de los 7 concejales de EH BILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, el Pleno estima la solicitud cursada por el Movimiento de pensionistas de Euskal Herria y en consecuencia ACUERDA :

1.- Demandar al Gobierno y Parlamento de la CAV que complementen hasta 1080 euros por 14 pagas la pensión mínima de las personas pensionistas con efectos retroactivos a enero de 2023.

2.- Enviar al Gobierno y Parlamento de la CAV notificación de la decision adoptada en el pleno de este Ayuntamiento en fecha 21 de diciembre de 2023.

**9.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:12 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**